

XII. JAGON JARDUNALDIAK

*Iruñea, **Jaso** Ikastola,
2008-IX-18 (*)*

(*) *Nafarroa Oinez* 2008 ekitaldiko inaugurazioa eta aurkezpena «Nafarroa Oinez 2008: Atera erazu mihia».

AGURRA

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Eskerrik asko zuei, *Jaso* Ikastolako arduradunei eta irakasle, ikasle, laguntzaile eta bestelako langile guztiei, eskaini diguzuen harrera abegitsuarengatik.

Euskaltzaindiak berretsi egin du gaurkoaren bidez, *Nafarroa Oinezekin* duen urteroko zina, aurreko urteetan bezalaxe. Izan ere, Nafarroa osoko Ikastolak dira urtez urte, ekitaldi honen lekukorik ederrenak.

Gaur, berriz, gure lanaren erakusketa zabala izan duzue: bateko, euskararen presentzia nabarmendu da Nafarroan eta Euskal Herri osoan eta besteko, euskararen alorreko lan akademikoa egin da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiari dagokiona, bi liburu eta jardunaldi esanguratsuen bidez.

Halako helburuak izan ditu sorreratik eta baditu egun ere Euskaltzaindiak. Aurrean aipatu bitasun hori egoki uztartzea, gure aldamenen izan ditugun euskal ikasleek jakin dezaten, gela desberdinetan izan arren, asmo bera dugula Euskaltzaindiak eta ikastolek: euskara aitzina, aurrera eramatea. Horra irudia, horra ekitaldia: Euskaltzaindia eta gaurko ikasle eta etorkizuneko gizarte-eragileak, ikastolaren teiltupean bilduta, euskaraz eta euskararen aldeko jardunean.

Atera ezazu mihia duzue aurtengo leloa, alegia, hots, mintza, idatzi, erabili euskara egunero, ordu oro, uneoro. Jakin dezagun guztiok, bestalde, mihia ateratze hori laido eta iraina baino, euskara erabiltzeko gonbitea dela *Jaso* Ikastolan, Nafarroan eta Euskal Herri osoan.

Mila esker guztioi.

ONGIETORRI

Javier Baztarrika,
Jaso Ikastolako lehendakaria

Arratsalde on, jaun-andreak:

Jaso Ikastolaren izenean esaldi pare bat baizik ez, Euskaltzaindiari esker-
rak emateko, gurean gaurko bilkura egiteagatik.

Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiak *Nafarroa Oinez*-i eta *Jaso*
Ikastolari laguntza berezi hau ematea.

Espero dugu gure etxean eroso sentitu izana, eta gaurko bilkura berezi hau
emankorra gertatu izana gaurko egun honetan hemen bildu zaretenontzat.

Gure eskerrik beroenak ere, arratsaldeko saio honetara hurbildu zareten
guztioi: guraso, langile, ikasle edota adiskide guztiei.

Berriz ere diot, eskerrik asko, mila esker aunitz.

NAFARROA OINEZ, 2008

*Unai Arellano,
Jaso Ikastolako hezkuntza zuzendaria*

Orain dela bi urte areto berri hau eraiki zenean ez genuen uste Euskaltzaindiko saio bat egiteko izan zitekeenik, baina oraingo honetan horrela izan da eta tira...ez da gutxi. Javierrek ongi esan du, benetan ohorea izan da guretzat.

Dakizuen bezala, *Oinez* urtea dugu hemen, *Jaso* Ikastolan, eta gaur pozik esan dezakegu *Nafarroa Oinez* honek ikastolek duten berezitasunik nabarmenena berpizteko balio izan duela. Alegia, elkarlana berpizteko. Izan ere, gure ikastola, beste ikastolak bezala, guraso eta langileen lanaren emaitza da, bere garaian, hezkuntza eredu euskaldun bat posiblea zela pentsatu zutenen ondorioa. Bide horretan, Euskaltzaindiak egindako ekarpena ezinbestekoa izan zaigu. Ikastolek milaka lagun euskaldundu badituzte, euskara bateratu bat sortu delako izan baita. Erriberako odola duen batek Arbizun sortua den batekin euskaraz hitz egitea ezinezkoa litzateke Euskaltzaindirik gabe eta noski ikastolarik gabe. Bestela esanda, irakasleok hain ezagunak eta *maitatuak* ditugun berritze gramatikalek badutela zentzua eta beraz, gaur gurekin zaudeten euskaltzainak: segi lanean orain arte bezala.

Jarraian berritze gramatikalari buruz asko dakien pertsona bat izanen da gurekin: Aingeru Epaltza. Jakina denez, idazlea eta itzultzailea izateaz gain, Euskaltzaindiko urgazlea da bera eta gainera *Jaso* Ikastolako laguna eta batzutan laguna baino gehiago. Nafarroako euskal literatura garaikideari buruz hitz eginen digu, oso izenburu erakargarria duen hitzaldian: «Nola konspirazioa garaitu genuen».

Eskerrik asko Aingeru gaur gurekin egoteko egin duzun ahaleginagatik eta mila esker zuei, Euskaltzaindiari, etxetik eta kanpotik etorri zareten guztioi.

NOLA KONSPIRAZIOA GARAITU GENUEN (NAFARROAKO EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAZ)

Aingeru Epaltza

Ismail Kadare European dagoen idazle ezagunetariko bat duzue. Haren izena urtero agertzen da Nobel sarirako kinieletan. Albaniarra da, dakizuenez, eta hango hizkuntza tikian idatzirik famatu da. Obra oparoa du. Euskaraz, oker ez banago, *H. dosierra* eta *Hiru arkuko zubia* ditu argitaratuak. Nik 80ko hamarkadan egin nuen topo Kadareren lanarekin, gaztelaniaz *El nicho de la vergüenza* irakurri nionean. *Ahalkearen hobia*-edo itzul genezake nobela horren izenburua.

Bere bertze lan batzuetan bezala, botereaz eta askatasunaz ari zaigu Kadare *Ahalkearen hobia*-n. Horretarako, turkiar inperioa erabiltzen du metafora gisa. Oroituko zaretenez, Turkia jaun eta jabe izan zen, hainbat mendetan, Europa balkanikoan. Harenak ziren gaurko Grezia, Bulgaria, Errumania, Hungaria, lehengo Jugoslavia gehiena eta Albania ere bai, Kadareren sorterrria. *Ahalkearen hobia* liburu ederra da, alde anitzetatik begiratuta. Niri, iradokigarriena iruditu zitzaidan turkiar inperio horrek bere mendeko herriak azpian atxikitzeke erabiltzen zituen teknika sofistikatuen kontakizuna. Otomandarrek, itxuraz, aparatu administratibo oso bat zuten horren zerbitzura, miliaka funtzionarioz hornitua. Makineria horrek diseinatzen zuen, egoeraren edo abagunearen arabera, herri menderatu bakoitzean aldiro erabili beharreko politika. Eta politika diodanean, kultur politika ere bai, gaur egungo hiztegia erabiltzera, baita hizkuntza politika ere. Horren barrenean, Kadareri sinestera, halako kultura bat edo halako hizkuntza baten suntsiketa erabakitzeraino heltzen ahal zen administrazio turkiarra. Behin horren deliberoa hartuta, hartara jartzen zituen bere indar guztiak. Horrek, bertzeak bertze, «ez-hizkuntza» izeneko prozesuari irekitzen zizkion ateak. Kadarek honela deskribatu zuen prozesu hori, *Ahalkearen hobia* bere nobelaren orrialdeetan:

Hura hizkuntza baten ohiko garapena etenez hasten zen, ahultasun baldintzetara ekartzeko asmoz, haur herbalak bezala, eta horren ondotik haren mutilazioa etortzen zen. Espediente berezietan, andeatzearen urrats guztiak gelditzen ziren idatzirik: hiztegiaren urteroko konparaketa, zeinean hitzak urrituz joaten baitziren azaroan hostoak bezala; gramatikaren gainbehera; partikulen atrofia, aurrizkiaren bereziki; sintaxiaren moteltzea. Ezari-ezarian, hizkuntza tratatzen hasten zen, jende hitz-totelaren gisara. Halako hizkuntza batek kasik ezinezkoa

zuen kalte egitea, zeren eta, umontzirik ez duen emakumeak bezala, bertsoak, ipuinak, legendak sortzeko gaitasuna galdua baitzuen. Gehienez ere, belaunaldiz belaunaldi, kronika traketsen bat eman zezakeen, logika eta segida handirik gabea eta denboraren joan-etorria nekez jasanen zuena.

Kadare ez da historiagilea. Kadare nobelagilea da. Nik, berriz, inperio otomandarraren joan-etorrien berri handirik ez dut. Ez dakit, beraz, hizkuntzak eta kulturak desagiteko tresneria sofistikatu hori, *Hobi lotsagarria*-n hain xehetasun handiz deskribatzen dena, noizbait benetan izan zen, edo dena fikzio bat den, idazleak goitik beheiti asmatua. Zerbait hanpatua ere izan liteke, aldi berean egiatik eta alegiatik biltzen duena. Hala izan edo bertzela izan, ez du axola handirik. Egia historikoaren ispilu zehatza ez balitz ere, balioko luke irudi gisa. Gauzak horrelatsu gertatu izan dira, hemen eta Balkanetan, agintea duen giza taldearen hizkuntza eta kultura beren mendeko herritarren zati batenak ez bezalakoak direnean. Inork hala erabaki gabe ere, inork indarrak, diruak eta baliabideak horretara berariaz eta espresuki jarri gabe ere, emaitza frankotan izaten da benetako erabaki eta plan bat izan balitz bezalakoa. Zer emaitza? Aditu berri dugu: *Halako hizkuntza batek kasik ezinezkoa zuen kalte egitea, zeren eta, umontzirik ez duen emakumeak bezala, bertsoak, ipuinak, legendak* –literatura, finean– *sortzeko gaitasuna galdua baitzuen.*

Ohartu zer nolako ahalmena egozten dion idazle albaniarrak literaturari: zer eta «kalte egiteko» ahalmena. Kaltea, nori? Aginteari, nori bertzela.

Kadarek 70. hamarkadaren bukaeran idatzi zuen bere *Hobi lotsagarria*. Garai hartan, oraino gelditzen zen bazterretan literaturari mundua aldatzeko ahalmena aitortzen zionik. Gaur egun, inork gutik aldarrikatzen du hori. Orain, entretenimendua, denbora pasa, istant bateko zirrara, eguneroko kezketarako ahanztura eta ihesa... halako gauzak bilatzen ditugu literaturan. Eta zilegia da hori guztia. Arrunt zilegia. Inork pixka bat haratago jo nahi izanez gero, bada-ki liburuetan bidea aurkituko duela munduaren aldera duen ikuspegia zabal-tzeko, giza arimaren berri zehatzagoa izateko edo bere burua eta bertzeak hobekixe ezagutzeko. Ez da guti, munduaren aldaketaren esperoan egon gabe.

Alde horretatik, banakakoen kontua dirudi literaturak. Ez da gezurra. Idazketa bakarkako ekintza izan ohi da. Bakarkakoa izan ohi da irakurketa ere. Literaturak lortzen duen oihartzuna, alabaina, sortzailearen giza talde osoaren-gana hedatzen da. Norbanakoa ez da literaturaren onuradun bakarra. Idazlearekin eta irakurlearekin batean, irabazian ateratzen da haien taldea ere. Literaturak, banan banako irakurleak entretenitzeaz, eskolatzeaz edo hunkitzeaz gain, ikusgarritasuna ematen die giza taldeei. Munduak haien berri izateko bitartekoa bilakatzen da. Are gehiago, giza taldeak edertzeko eta ederresteko bidea eskaintzen du literaturak. Gauzak hala direlako ulertzen ditugu bertzenaz bitxikeriak lirakeen gauza batzuk, hala nola inoiz libururik batere irakurriko ez duen eskalduna ere poztea eta bere autoestimua handitzea Bernardo Atxagari halako sari potoloa ematen diotelako Madrilan edo Kirmen Uriberi halako aipamen bat egin diotelako New Yorken. Susmoa dut Kadare hain

zuzen ere horretaz ari zela aginteari kalte egiteko ahalmena aitortzen zioenean. Aginteak ikusezin edo, hala ezin denean, bederen itsusi nahi izaten ditu bera bezalakoak ez direnak. Literaturak, berriz, ikusgarri eta eder egiten gaitu, baita horren irakurleak ez direnak ere.

Arestian erran bezala, Kadareren *Hobi lotsagarria* 80ko hamarkadaren hondarrean irakurri nuen. Burutu gabe ere, errebelazio baten pareko eragina izan zuen nigan. Bat-batean, dena ulertua nuen. Bat-batean banekien zergatik zen euskal literatura zaharraren ibilbidea hain eskasa, hain tristea eta hain etsipengarria. Gauzak hala izan zitezen, konspirazioa antolatua zuen norbaitek edo norbaitzuek.

Idazle albaniarrek iradokirik, teoria hori gure letren historiara ekartzeko grinaturik ibili nintzen bolada batean. Pentsamenduz ez ezik, egitez ere bai. Nobela baten zirriborroan abiatu nintzen. Ez dut gogoan izenburua. Hain segur ere, hura paratzera ere ez nintzen ailegatu. Filologo lizentziatu berri bat egin nuen haren protagonista. Iruñekoa, jakina. Mutiko gazteak, idazle zahar eta kasik ezezagun baten heriotza ikertzen hasi eta, haritik tiraka, sare sekretu bat deskubrituko du bere hiriburuan. Sare aspaldi antolatua da, konkista gaztelararren aitzinetik, eta sortzea bezain aspaldikoa du xedea: zer eta ezabatzea eta itzalaraztea gure hizkuntzak herrialde honetan emandako sormen lan guztiak. Liburuaren klimaxean, nire filologo ausarta –kontuan hartu literatura zela, fikzioa!–, nire filologo ausarta, beraz, ailegatuko da Diputazioko jauregiko sotorik ilunenean kokaturiko gela are ilunagora. Han, sekulako altxorrekirekin egingen du topo:

- Nafarroako erresumaren hasiera kontatuko zuen kronika edo kanta epiko luzea.
- Axularren idazlan erotiko guztiak.
- Konkistatzaile edo esploratzaile baten alabaren abenturen kontakizuna, Ameriketako konkistan.
- Euskaldun ilustratu baten antzezlan antiklerikalak.
- Hemengo arte ikasle baten gazte ibilerak, mende hasieran, Parisko *rive gauche* delakoan.

Eta gehiago.

Aurkikuntza miresgarriaren liluran dagoela harrapatuko dute mutila. Zorioneko sare sekretuko buruzagiarengana eramanez, ustekabea ez da tikia izanen: gazteak parean duen gizona ez da nornahi, euskal kulturen izen handia duen norbait baizik. Ohi denez, solasaldi luzea piztuko da bien artean. Horren hondarrean, hara zer erranen dion pope satorrak filologo presoari:

Ikusi duan guztia amets bat baizik ez duk. Inoiz ez duk ezkutuko sare edo erakunderik izan, lanean zuen kontra. Inoiz ez duk zuen porrot historikoa zurituko

duen konspiraziorik izan. Zuen hizkuntzan deus guti idatzi duzue eta are gutiago argitaratu, baina ez, kasu bakan batzuk edo garai jakin batzuk kenduta, inork indarrez eragotzi dizuelako. Jende ezjakina, ezgauza eta ezdeusa izan zarete, handikien morroi eta goldeari atxikiak, bazterrekoetan bazterrekoenak, mundutik denen oharkabean pasatzeko sortuak. Atzarri zaretelakoan zaudete, baina hobe duzue etsi. Gauzak ez dira aldatuko. Berdin segituko duzue, agrafu eta isil. Entzunezinak zarete, ikusezinak. Noizbait aienatuko zarete, noizbait desagertuko zarete, eta inor ez duk ohartuko mundu osoan.

Hurrengo egunean, filologo gaztearen hilotza agertuko da, Iruñeko harresi zaharren zolan. Istripu bat, bistan dena.

Ez nuen liburu bat burutu. Zirriborroa eta kapituluren bat egina nuela, gure bertze gaitz batzuek hartu zuten lehentasuna neure baitan. Tartean, Jon Alonsok *Katebegi galdua* argitaratu zuen. Hartan ere liburu bat, inork inoiz ezagutu gabea; hartan ere konspirazio bat, liburuak argia ikus ez zezan; hartan ere nobela beltz bati dagozkion hilketak eta azpijokoak... Kointzidentzia sobera. Bertan behera utzi nuen proiektua. Behin edo behin damua etorri izan zait. Nork daki ez ote nuen galdu *best seller* bat merkaturatzeko aukera. Hainbat alderditatik begirata, *Da Vinci kodea*-ri hartuko zion aurea. Bertze batean izan beharko.

Beharbada, zuetariko norbaiti gehiegizkoak edo exajeratuak iruditu izanen zitzaizkion nik asmatutako sare horretako buruzagiaren hitzak. Gordinak dira, ezin uka. Handiegiak ez, ordea. Euskararen historia aztertzen badugu, eta historia horren barnean bereziki Nafarroakoari kasu egiten badiogu, bada gauza bat guztiz nabarmena. XIX. mendearen hasiera arte, euskaldunak izan gara lurralde honetako hizkuntza talderik handiena. Gauzak hala izanagatik, izugarriko zailtasunak izan ditugu ohargarri, ikusgarri, entzungarri eta, jakina, eder gertatzeko. Erdaldunak –aginteak– ez du euskalduna ikusten. Ez du entzuten. Ez da hartaz ohartzen ere. Eta hartaz ohartzen denean, menditar ezjakin bat baizik ez du ikusten. Bada, gainera, bertze fenomeno bat, horren oihartzun dirudiena. Gainerako euskaldunak, mendebaldekoak bereziki, XIX. mendearen bukaeraz geroztik beren buruaren aldarrikapena egiten hastean, nafar euskaldunak ez gara, historikoki, hagitzez ere ikusgarriago gertatu haien begietara.

XX. mendeko 70eko hamarkadan hasi ziren aztertzen euskal literaturaren inguru soziala. Orduko lehen lan horiek irakurri zituenak ondorio garbia aterako zuen, alegia, Nafarroa ia-ia basamortua izan dela euskal literaturarako. Liburu horietariko batek plazaratutako datuen ariora, XVI. mendetik XX. mendearen lehen puskara doan tarte luzean, euskal idazleen %5 baizik ez zen Nafarroa Garaian sortua. Liburuak plazaratu zen tenorean bizirik zeuden idazleetan are tikiagoa zen proportzioa: %3,2. Zenbaki hutsetara ekarrita, 5. Patxi Zabaleta horietariko bat zen. Jose Anjel Irigarai falta zen, lanean abiatua izan arren. Iñaki Zabaleta ez zen oraino plazaratua. Kopuru horiei, hitzez hitz, «lotsagarri» zeritzen delako azterketaren egileak.

Ez dakit garai hartan hemengo zenbat idazlegaik irakurri zituzten lerro horiek. Ez dakit bertzeengan zirrara edo inarrosaldi berezirik eragin ote zuten. Niri, bederen, hitz hori landaturik gelditu zitzaidan luzaz bihotzean: «lotsagarria». Joxemiel Bidador ez zen oraino ari. Ez genuen, beraz, nork munduari erakutsi ez ginela hain ezdeusak izan.

Uste dut garai hartako euskal idazle frankok halako zurztasun sentipen bati egin behar izan ziola aurre lanari lotzean. Sentimen hori are handiagoa zen, nik uste, idazle nafarren artean. Segur aski horregatik, apokrifotoetara jo genuen hainbertzek lehenbiziko liburuak idazteko tenorean. Nik, konparaziorako, pertsonaia literario bat asmatu nuen, eta hari egotzi nizekion neure orduko lan goiztiarrak. Gerla aurreko urteetan Nafarroan ari izandako idazlea zen, nolabait ere, izan nahi nuen eta inon ere aurkitzen ez nuen aitatxi literarioa: idazle laikoa, aurrerakoia, hiritarra, gure tradizioaren eta XX. mendeko abangoardia europarren uztartu zituena. Ahantzuratik erreskatatuak ziren, beraz, nik sinatzen nituen lanak.

Erran bezala, ez nintzen horretan bakararra. Alonsok ere apokrifo bat jarri zuen dantzan, arestian aipatu dudan *Katebegi galdua*-n. Patziku Perurenak, berriz, nik bezala, lehenagoko bertze idazle batzuk asmatu eta haiei egotzi zizkien bere lehen poemategiak: *Joanes d'Iraola, Iraingo apaiz gaztea...* Gil Berak, Axularren eta Larrekoren estiloak bat egin zituen bere izkribuetan, etenik gabeko literatur tradizio bat izan bagenu aterako zen idazmolde estandarra irudikatu nahirik noski. Denok ari ginen, nola edo hala, gure zurztasunaren mamua uxatzen eta exortzizatzen. Hutsaren ganean eraiki ezinik, geure buruarendako zimendua ezartzen ari ginen. Funtsean, erran liteke konspirazioa asmatua genuela, konspirazioaren ondorioak gainditzen hasi ahal izateko. Pentsatu nahi dut gure ondotik etorri direnek errazagoa izan dutela.

80ko hamarkadaren amaiera hartatik hona euriak bide egin du. Ikusteko guti du egungo panoramak eta duela 25 urtekoak. 2002an, hogeita hamar bat idazleren zerrenda osatu nuen, hau bezalako mintzaldi batek puntua emanda. Han ziren gaur egun jadanik lan dexente eginak diren batzuk, hala nola Jokin Muñoz, Juanjo Olasagarre, Josetxo Azkona, Alberto Barandiaran edo Mikel Taberna eta, zer esanik ez, Pello Lizarralde aspaldi iruindartua. Castillo Suarezek eta Alberto Ladrónnek egiten zuten zerrendan azkenak. Literaturako lau genero klasikoetan ari zirenak ziren, eta gutienez ere liburu bana argitaratuak. Kanpoan utzi nituen, beraz, filologia, dibulgazio, kazetaritza edo itzulpen lanen egileak. Bertze topiko bat deseginik, Iruñean edo Iruñerrian bizi ziren gehien-gehienak.

Euskal literaturak, Nafarroan, bere historiako loraldirik nabarmenena bizi zuela adierazi nuen orduan. Aski esaldi pottoloa, egia erratera. Baieztapen berbera egin nezakeen, Euskal Herriko bertze herrialdeez, Hegoaldekoetan behinik behin. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere inoiz ez zen hainbertze, hain ugari eta, noski, hain ongi idatzi euskaraz. Modu apalagoan mintzatuta,

beraz, erran dezakegu goraldi ia-ia orokor baten bertsio lokala genuela hemen goa. Normala, aizue, hau ez da bertze galaxia bat. II. Errepublikara garaian ere erresuma zaharreko euskaldunek elikatu zuten orduko kultur mugimendua. Desberdintasun batekin. 30eko hamarkadako Berpizkunde nafarra probintzia mailako fenomeno bat izan zen oroz gain. Ez zuen, proiektzio handirik izan hemengo mugetatik kanpora. Euskal literaturaren eskuliburuek aipatu ere ez dute egiten. Gure egunetakoak, berriz, oihartzuna du Nafarroatik at. Hori bai dela berria.

XX. mendearan azken urteetan eta XXI.aren hasierakoetan Nafarroan euskaraz sortzen den literatura, lehen aldiz, ez da bazterreko planeta bat gure unibertso tikian. Are gehiago, uste dut ezinbertzeko tresna izaten ari dela euskal kulturaren ikuspegia zabaltzeko eta aberasteko. Egin daiteke 36ko euskal literaturaren nondik norakoen kontakizuna Nafarroako berri izan gabe. Aldiz, ezinezkoa da egungo panoramaren berri ematea hemengo produktzioa aldi batera utzita. Erraten ahal dugu, beraz, literaturak ikusgarriago –eta ederrago– egin dituela Nafarroako euskaldunak gainerako euskaldunen begietara. Ez hainbertze nafar erdaldunen begietara.

Arestian azaldu dut: lehenagoko denboretan hemengo erdaldunak –hemengo aginteak– ez gintuen ikusten, ez gintuen entzuten, ez zen gutaz oharitzen ere. Eta gutaz oharitzen zenean, menditar ezjakin bat baizik ez zuen ikusten. Gaur egun, erdalduna agintean dago beti, hala politikan nola kulturaren edo ekonomian. Hori da noski gauzen ordenamendu berezkoa. Lehenagoko denboretan baino gehiago ikusten edo entzuten gaitu orain erdaldunak? Eta gutaz oharitzen denean zer ikusten du gaur egun? Nola ikusten gaitu? Literatura baino gehiago beharko da herrialde honetan, gure ikusgarritasun maila –eta gure edertasun maila– goititzeko. Zer behar den, horra eztabaida interesgarria, funtsezkoa segur aski gure etorkizunerako. Egun batean horretaz aritu beharko dugu seriooki.

2002tik hona, idazle berrien agerpena ez da eten probintzia honetan. Zazpi-zortzi izen gehiagorekin aberastu da nafar harrobia. Idazle berri bat baino gehiago plazaratu zaigu urtero. Beharbada ez da ikaragarria, baina hain gaizki ere ez dago, kontuan hartu beharreko guztiak kontuan hartuta. Gehienetan, gainera, haien lanak ez dira oharkabea pasatu.

Bada alderdi bat, hala ere, lasai uzten ez nauena: azken urteetan ikasi ditugun izen berri guztiak, bat kenduta, gizonezkoak dira. Bertzalde, poeta edo saiakera egileak dira guztiak. Barkatuko naute gizonezko eta poeta edo saiakera egile direnek. Deus ez dut haien kontra. Ni ere gizonezkoa naiz. Nik ere egin dut bekatu, bi genero horiek landurik. Ikuspegi soziolinguistiko edo sozioliterario batetik ez da arraz seinale ona, dena dela.

Munduko literatura normalizatu guzti-guztietan, genero narratiboak agintzen du aspaldi handitik. Gutxiengo batendako bazka ditugu poesia eta saiakera. Gainerakoan, modernotasunera iritsi gabeko literatura salatu ohi digu

poesiaren nagusitasunak, edo biziraupen arazoak dituen hizkuntza komunitatea. Aldiz, emakume idazleen ugaltze kuantitatibo eta kualitatiboa da, nik uste, mendebaldeko literaturaren ezaugarri nagusietariko bat, milurteko hasiera honetan. Nor harrituko, bertzalde, literatura irakurtzea gero eta jarduera femeninoagoa bada?

Euskal letren ferian ere, orokorrean hartuta, emakumeak egiten ari dira, hein handi batean, belaunaldien arteko ordezkapena. Asots eta zalaparta handirik atera gabe, neska tropa bat bere nobelak eta bere ipuin bildumak uzten ari zaigu gure liburuetako apaletan, bertzelako molde, ikuspegi eta koloreak ekarriz gure kontagintza betidanik hain maskulinoari. Erasmus belaunaldiaz mintzaten hasiak dira zenbait so egile, unibertsitateko programa horren barnean atzerrian egindako egonaldiaz baliatu baitira emakume horietariko franko beren lehen lanak idatzi eta girotzeko. Izan ere, gehienen kasuan, bada halako hari bat haien ikasketen eta haien literatur lanaren artean. Kazetariak edo Komunikazio arloko tituludunak dira, Arte Ederretako edo Historiako lizentziadunak, Hizkuntza eta Humanitateetan diplomadunak. Goi mailako ikasketa horiek euskaraz eginak dituzte gehien-gehienek.

Ez da hori Nafarroan ahal duguna. Herrialde honetan, aurrerapauso polita egin dugu irakaskuntzaren munduan. Aurrerapauso horiek sendotzeko, antolatuta da, konparaziorako, aurtengo Nafarroa Oinez Iruñean. Baina gero etena heldu da. Aginteak hesia ezarri digu, goi mailako ikasketen atarian. Nafarroan hiru unibertsitate daude, baina haietan karrera bakarra egin daiteke euskaraz. Literaturzaletasunak jotako nafar euskaldun gazteak ez du bere bokazioa bideratzeko moduko ikasketarik bere inguruan, non ez den etxetik ateratzen. Tamalez, gero eta etxezuloagoak dira gure seme-alabak. Idazle eskolak edo interneten erabilera, blog-en mugimendua –lehenengo literatur aldizkariaren egitekoa bereganatu duena– istorio ezezagunak dira hemengo kanpusetan. Euskal literaturaren azken belaunaldia unibertsitateetatik hurbil hazten ari da gure mendebaldean. Hemen, iduri du unibertsitateetatik urrun behar duela, inon haziko bada. Gaitz erdi litzateke, hutsune hori nork bete bagenu. Ez dugu, ordea, nork beterik. Adin batetik aitzina, kutsu eta izaera marginala eta anti intelektuala du, nagusiki, hemengo gazte euskaldunak bere euskalduntasuna sozializatzeko aurkitzen duen giroak. Hartan, behar baino merkeago dabil ustekeria euskaldunena ez dela azkarrena, jantziena edo irakurriena izan behar, astoena baizik. Hori ere ez da ongarri hobereana literaturarako. Ezta, itxura denez, komikirako, zinemarako, bideorako, antzerkirako eta, orokorrean, ikusgarri eta batez ere eder egiten gaituen edozein gauzatarako. Horra non den, orain, konspirazioa. Gai polita, nobela baterako. Hogei urteren bueltan ibiliko banintz, hain zuzen ere horretaz idatziko nuke.

70ean, 80an, 90ean bere lanak ezagutarazten hasi zen belaunaldiak ere ez zuen noski giro hobereana sormen lanari ekiteko. Giroa giro, harekek lortu zuen konspirazioa garaitzea. Nola eta literatura sortuz. Agian bertze horrenbertze

eginen dute orain heldu direnek eta etortzeko daudenek: gu ikusezin eta itsusi mantentzeko antolatuak diren konspirazio handi eta tikiak deuseztatu.

Ez gaitezen, beraz, ezkorrak izan. Beharbada, ni mintzatu bitartean, lanean ari da, zintzo-zintzo, lurralde honetako seme-alaba gazteren bat. Beharbada, nork jakin, Budapesteko edo Lisboako egonaldian izandako esperientziez baliatzen ari da horretarako. Beharbada idazten ari da denbora gutiren buruan denok aho zabalik utziko gaituen nobela. Hura irakurtzeko irrikaz nago jadanik.